

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UR PARTZUERGOA

Behin betiko onestea kreditu gehigarriak emateagatik 2018ko aurrekontuko 1/2018 kreditua aldatzeko espedientea

Iruña Okako Ur Partzuergoaren batzar orokorrak, 2018ko irailaren 18ko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea 2018rako aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteari, 1/2018 kreditu gehigarria emateagatik.

Hasierako onespeneren iragarkia 2018ko urriaren 5eko ALHAOn (115. zk.) argitaratu zen.

Espedientearen hasierako onarpenera jendaurrean erakusteko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtu da, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak xedatutakoa betetzeko, osorik argitaratzen da behin betikoa bihurtu den erabakiaren xedapen zatia, eta argitaratzen denetik aurrera sartuko da indarrean.

Kreditu aldaketak

AURREKONTU PARTIDA	ERREKURTSOAREN KONTZEPTUA	KREDITU ALDAKETAK
161.212000	Instalazioen mantentzea	12.000,00
161.221001	Horniketa materiala eta gaiak erostea	8.000,00
920.131002	Mantentze langilea	8.200,00
920.213000	Partzuergoaren autoak eragindako gastuak	2.000,00
920.220040	Zenbait material inbentariaezin	500,00
920.220150	Laneko arropak	1.000,00
920.222060	Mantentze informatikoa	1.600,00
GUZTIRA		33.300,00

Aldaketen finantzazioa

DIRU SARRERAK, KONTZEPTUAK	ERREKURTSOAREN KONTZEPTUA	DIRU SARRERA GEHIAGO
870.01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	33.300,00
GUZTIRA		33.300,00

Langraiz Oka, 2018ko azaroaren 8a

Lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA